

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatugabeak -IV-

Aditzean oinarritutako gerundioak

Izenean oinarritutako gerundioak

Gerundio gaiztoak

EAB 5

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.

Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntz-korpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTzea

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal Hizkuntza eta Literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatuabeak -IV-

AURKIBIDEA

Aditzean oinarritutako gerundioak.....	3
Izenean oinarritutako gerundioak.....	10
Gerundio gaiztoak.....	13

IZENA:.....MAILA:.....

Euskaraz, berez, ez dago inguruko hizkuntzen gerundioaren parekorik; haren ordez, euskarak beste zenbait baliabide erabiltzen ditu.

Aditzoina + -t(z)en

Zertan? Galderari erantzuteko aditzoinari -t(z)en erantsi ohi diogu. Normalean, subjektua zer egiten ari den adierazteko erabiltzen dugu.

Kristina eta Susana bilera gelan daude.

KRISTINA —Kaixo, Susana zertan ari zara?

SUSANA —Testu honi zuzenketak **egiten**. Ikusi al duzu Xabier?

KRISTINA —Bai, Etxetik **irteten** ikusi dut. Ez al da oraindik etorri?

SUSANA —Ez, ez da oraindik etorri. Ordu erdi daramat **itxaroten**.

KRISTINA —Ez da urruti ibiliko.

SUSANA —Eta zu? Non izan zara orain arte?

KRISTINA —Lanak **amaitzen** geratu naiz. Sentitzen dut berandu etorri izana.

SUSANA —Hara. Xabier atea **irekitzen**.

Partizipioa + -(e)z / -(a)z

(bidea)

—Nola lortu zuen DVDa? —Dendan erosiz.

—Nola jakin duzu non dagoen?—.....

—Nola konpondu duzu arazoa?—.....

—Nola joan zara haraino? —.....

—Nola gainditu duzu DBH? —.....

—Nola sartu dira lapurrak? —.....

IZENA:.....MAILA:.....

Partizipioa + -(e)z / -az

(kausa, ondorio)

kausa-ondorio erako erlazioak adierazteko erabiltzen da partizipioak eta instrumentalak osatutako egitura. Halakoetan, euskalkien arabera, *-ta* eta *-(r)ik* formak ere erabiltzen dira.

Berridatzi esaldiak emendiozko juntagailua (eta) erabiliz, adibidean bezala.

Behar bezala ez zebilela ikusiz, zaborretara bota zuen.
Behar bezala ez zebilela ikusi **eta** zaborretara bota zuen.

Neuk hartu nuen, neurea zela pentsatuz.

.....
Ettxera deitu dizut, han zeundela pentsatuz.

.....
Ezin nuela ikusiz, lagun bati deitu nion.

.....
Atea itxiz, alde egin zuen.

.....
Bozgorailua martxan jarritz, konpondu zen festa.
.....

Partizipioa + -(e)z / -az

(azalpenezko gerundioak)

Azalpenezko perpausak eratzeko ere erabiltzen da partizipioa eta instrumentalak osatutako egitura. Halakoetan, partizipioa amaieran jartzen dugu.

Bulegoan

SUSANA —Berandu zatozte.

KRISTINA —Edozein modutan, Susana, sakelako telefonoan ohar bat utzi dizut, berandu iritsiko nintzela **esanez**.

SUSANA —Sakelako telefonoan? Badakizu, baina, telefonoa hondatuta daukadala.

KOLDO —Sakelako telefonoa hondatuta daukazula? Hau marka! Deitu ez didate ba gaur goizean, sakelako telefono berria doan **eskainiz**.

SUSANA —Nork?

KOLDO —Ez dakit. Ez nuela nahi **esanez** eskegi diet. Jakin izan banu behar zenuela...

KRISTINA —Gaur egun edonon oparitzen dituzte sakelako telefonoak.

IZENA:.....MAILA:.....

Partizipioa + -(e)an

Partizipioari NON kasuaren mugatu singularra erantsiz lortzen dira *egonean, galduan, ezinean* eta horrelako gerundioak.
Oso erabilera mugatua daukate horrela osaturiko gerundioek.

Azpimarratu gerundioa adierazten duten formak.

Bilera gelan daude Koldo, Kristina eta Susana

KOLDO —Jota nago. Egonean eman dut gau osoa.

KRISTINA —Zer dela eta?

KOLDO —Ezin izan dut lorik egin.

KRISTINA —Harritzekoa, Xabier. Zu baino lotiagorik...

KOLDO —Ni ere harrituta nago. Herenegun bilera gidatu zuen gizona nondik ezagutzen dudana gogoratu nahian ibili naiz.

SUSANA —Eta?

KOLDO —Ezer ez.

SUSANA —Ni ere burutik kendu ezinean, ibili naiz. Badakit haren aurpegia nonbaiten ikusi dudala, baina horren jakinean egonagatik ere, non kokatu ezinean ibili naiz.

KRISTINA —Anderri buruz ari al zarete?

SUSANA —Bai, neska, Ander Iturriberori buruz.

KRISTINA —Ander nondik ezagutzen dugun gogoratu ezinean al zabilzate?

SUSANA —Zuk ere ezagutzen al zenuen?

KRISTINA —Jakina. Jonen filmaren estreinaldian ezagutu genuen. Gidoia berak idatzi zuen.

KOLDO —Egia. Orain bai, orain gogoratzen dut. Hau lasaitasuna. Gogoratzen al duzu Susana?

SUSANA —Gogoratuko ez dut ba. Lanbide guztiak arian-arian ikasten direla esan ziguna.

Izenean oinarritutako gerundioak

Iraupena: 7 min 20 s

HELBURUA

Gerundioa zer den eta euskaraz nola adierazi ikastea.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Izenean oinarritutako gerundioak.

Prozedura: Adibideak, antzezpenak, grafikoak.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.

—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 11. eta 12. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) 11. orrialdea etxean egiteko da.
- e) 12. orrialdeko antzezpenean hiru pertsonaiak hartzen dute parte, Kristinak, Susanak eta Koldok.

Antzepena lantzeko ikasleei esan hiruko taldeak osatzeko, pertsonaia bana aukeratzeko eta testuan letra lodiz azpimarratutako hitzak beste hitz batzuez ordezkatzeko. Eman hamar minutu irakurtzeko eta hitz berriak idazteko.

Hamar minutuak igaro ondoren, hirukote bakoitzari beste ikasleen aurrera ateratzeko esan eta, testua eskuan, antzetzuz, ozenki irakurtzeko eskatu.

IZENA:.....MAILA:.....

Guk nahi baino gehiagotan, ustez gaztelaniaz idatzirik dauden idazkietan, hamaika gerundio gaizto ikusten dira. Gero, guk gure lagunei, irakasleei edo dena delakoari, testu horietan zer irakurri dugun azaltzeko hamaika komeria izaten ditugu.

Gerundioak geroaldikoak direnean

La administración convocará la oposición, **concediendo** siete días de plazo para formular solicitudes.

??????????
~~(concediendo)~~ (y concederá)

Administrazioak oposizioaren deialdia egingo du **eta** eskabideak aurkezteko zazpi eguneko epea emango du.

Euskaratu

Dictó sentencia, concediendo diez días de plazo para reclamar.

Gerundioak helburuzkoak direnean

Les envió la presente carta **agradeciéndoles** la información sobre los cursos y **solicitándoles** diez formularios de inscripción... ???????????

(para agradecerles) ~~(agradeciéndoles)~~ (para solicitarles) ~~(solicitándoles)~~

Eskutitz hau bidaltzen dizuet ikastaroei buruzko informazioa **eskertzeko** eta hamar eskabide-ori eskatzeko...

Euskaratu

Le hizo un gesto agradeciéndole su presencia.

Gerundioak adjektiboak direnean

El alcalde ha dictado un decreto **regulando** el horario de los comercios.

??????????
~~(regulando)~~ (que regula)

Alkateak denden ordutegia **arautzen duen** dekretu bat eman du.

Euskaratu

Presentó un escrito, retirando la denuncia.

Gerundioak koordinatuen ordezkotzat

Se conocieron en la universidad y se enamoraron, **casándose** después de graduarse.

??????????
~~(casándose)~~ (y ... se casaron)

Unibertsitatean ezagutu, maitemindu **eta**, graduatu ondoren, **ezkondu** egin ziren.

Euskaratu

Presentó un escrito, retirando la denuncia.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal Gramatica Osoa*, Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramática Gaitasuna Lantzen*, Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Adizki jokatuqabeak -I-

Adizki jokatuqabeak -II-

Adizki jokatuqabeak -III-

Adizki jokatuqabeak -IV-

Adizki jokatuak -I-

Adizki jokatuak -II-

Adizki jokatuak -III-

Aqintera, baldintza eta aditz arazleak

Aditz-lokuzioak

Zenbait aditz bihurri

Ekoizlea:



Getaria, 18-behea
01010-Gasteiz

Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

www.artez-bai.com

LG.- VI- 465 / 08

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2008/11/27